

7	JARDUERA ACTIVIDAD	ADIBIDEA MODELO
	diagnostikoa <i>diagnóstico</i>	7.2

DIAGNOSTIKOAREN ADIBIDEA | ESPARRU DIDAKTIKO-METODOLOGIKOA

HIZKUNTZEN IKAS-IRAKASKUNTZA ARLO EZ LINGUISTIKOETAN
 [DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA]

Irakurmena, idazmena, entzumena, mintzamina eta elkarreragina lantzen dituzue zuen arloetan?

Zuen ustez, horrela egin beharko genuke? Nola? Nola hasi gaitzke?

Irakurmena, idazmena, entzumena, mintzamina eta elkarreragina ebaluatzen dituzue zuen arloetan?

Ebaluatu beharko lirateke? Modu bateratuan? Nondik hasi gintezke?

Musika: Ez dugu horrelakorik egiten. Ez dago koordinaziorik arloen artean ezta gure arloaren eta hizkuntzen artean ere. Orain dela urte batzuk gaztelania eta euskara Hizkuntzen Trataera Bateratuaren inguruan hasi ziren lanean eta aurten atzerriko hizkuntzarekin ere koordinatzen dira. Baina besterik ez.

Teknologia: Hizkuntzei dagokionez ez dago koordinaziorik arloen artean. Teknologia eta hizkuntzen mintegien artean ez dago koordinaziorik.

Latina: Departamendu bakoitza bere kabuz antolatzen eta koordinatzen da. Ez dago harremanik eta ez dugu hartu erabaki bateraturik hizkuntza-gaitasuna denon artean lantzeko. Beste hizkuntzekin ez dago elkarlanik. Ez daukagu irizpide komunik. Gainera, oso zaila iruditzen zait eta ez dut uste beharrezkoa denik. Irakasgaiak oso desberdinak direlako.

Fisika eta Kimika: Ez dugu gai hori tratatu etapa-koordinazio bileretan. Erabaki bakarra da euskararen normalizazioan lan egingo dugula, eta horregatik, euskara baino ez dugu erabiltzen gure arloetan (bideoak, entziklopediak, testu liburuak...) Behin, euskara mintegiarekin bildu ginen laborategiko informe bateratuak egiteko. Izan ere, ikasleek halako txostenak egiten ere ikasi behar dute. Ikasle guztiek eta irakasleok eskema-eredu berdina erabiltzen dugu.

Heziketa Fisikoa: Guk geure mintegian ez dakigu ezer horren inguruan. Ez dugu inoiz horretaz hitz egin eta ez dugu akordiorik hartu. Hizkuntzekin ez daukagu harremanik. Bakoitzak berea egiten du, koordinaziorik gabe.

Erljioa: Ez daukat koordinaziorik hizkuntzetako mintegiakin. Tutorearekin soilik koordinatzen naiz noizean behin.

Plastika: Ez dago koordinaziorik ez arloen artean ez hizkuntzakoekin, ingeleseko mintegikoekin kenduta...

Matematika: Ez dugu koordinaziorik arloen artean hizkuntzei dagokienez. Hizkuntzetako mintegiko irakasleei aipatu egiten diegu zelako arazoak dituzten gure ikasle batzuek testuak, lexikoa eta egitura batzuk ulertzeko, eta noizean behin erantzun puntualak eman dira (errefortzuak, esaterako...).

Biologia: Ez, ez hizkuntzei dagokienez ez beste gai batzuei dagokienez, ebaluazio-irizpideei dagokienez, esaterako. Hizkuntzen mintegiakin ere ez dago koordinazio formalik, akaso pertsonen artekoa, baina batez ere momentuko beharrezane erantzuteko.